

Beste enpresa batzuen esku utzi ezin duguna, berezi egiten gaituena, gure produktuen diseinua eta pertsonalizazioa da. Ekoizpenaz (Gure salmenten popularitatearen baitan produktuaren ekoizpen kantitatea erabakiko dugu), Arazoak konpontzeaz (Arazo nagusiak, makinariaren arazoak adibidez aurreikusten saiatuko gara eta hainbat konponbide pentsatuta edukiko dugu. Berriz kanpo arazoren bat egon ezkeru gure web gunetik gurekin harremanetan jartzeko funtzio bat egongo da) eta Plataforma edo Sareko jardueretaz (Egunero errebisatuko dugu web-orria funtzionamendu egokia duen ikusteko) gu arduratuko gara.

Kamisetak egiteko materiala beste enpresei erosiko diegu, kamisetak gure langileak egingo dituzte, eta diseinu guztiak edo gehienak behintzat guk egingo ditugu.